



Ongi etorri!

Zumaiako Harrera Gida

Zumaiako
Udala



ZUMAI A
BIZITZEKO
DA

Aurkibidea

1. Sarrera	3
2. Kokapena	4
3. Euskaraz egin	4
4. Eskubideak eta baliabideak	6
4.1. Erroldatzea eta informazio orokorra.....	6
4.2. Egoera legalari buruzko informazioa.....	6
4.3. Gizarte arreta.....	8
4.4. Osasuna.....	9
4.5. Etxebizitza.....	9
4.6. Enplegua.....	10
5. Hezkuntza	12
6. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna	15
7. Zumaia, herri bizia	17
7.1. Kultura.....	17
7.2. Kirola.....	18
7.3. Haur eta gazteentzako baliabideak.....	18
7.4. Adinekoentzako baliabideak.....	18
8. Mapa	19



1. Sarrera

Ongi etorri Zumaiaara, Ongi etorri Euskal Herrira!

Zumaia bertan bizi garen herritar guztiok osatzen dugu, guztiok gara bertako herritar eta guztiok eraikiko dugu Zumaia egunez egun. Zumaia abegikorra eta parte hartzailea izatea nahi dugu. Horregatik, Zumaia Udalarekin harremanetan jarri nahi baduzu, arreta zuzena eskainiko dizugu, eta zure iradokizunak eta kexak bideratzeko prest egongo gara. Zumaia herri plurala da, historia handiko herria. Hori ahaztu gabe, etorkizunean dugu jarrita begirada, eta etorkizun hori bertan bizi garen herritarron artean erabakiko dugu.

Gida honen helburu nagusia da Zumaia etorri berri zaretenoi herriratzen laguntzea, baliabide interesgarriei buruzko informazioa azalduz.

Udalak herritar ororen bizi kalitatea bultzatu nahi du, horretara bideraturik daude Zumaian eskaintzen ditugun baliabideak eta horiek erabiltzera animatu nahi zaitugu. Gainera, Zumaian elkartegintza indartsua daukagu, bai kirol arloan, arlo sozialean nahiz kulturean. Elkarrekin antolatzen dituzten ekintzetan parte hartuz, maila pertsonalean eta kolektiboan irabaziko dugu.

Zumaian eta Euskal Herrian bertako eta berezko hizkuntza da euskara, eta hizkuntza komuna izatea nahi dugu, kohesio hizkuntza, elkartzen gaituena. Horretarako, euskaraz egitera animatu nahi zaitugu txoko honetatik.

Zuek dakartzkizuen bizipenak, kulturak eta hizkuntzak, aberasgarri dira zumaiaarontzat. Elkarren arteko harremana ehuntzen goazen neurrian, ziur ezagutu eta partekatuko ditugula.

Azkenik, jakizu Zumaiaiko herriaren eta Udalaren atek zabalik dituzula.



2. Kokapena

Euskal Herria Europako nazioa da, berezko kultura duena (balio sistema, ohiturak, kultur adierazpideak, kirola...), eta berezko hizkuntza ere bai: euskara. Era berean, mundura zabalik dagoen herrialdea da.

Zazpi lurraldez osatua dago; Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea, Nafarroa Garaia eta Zuberoa. Bertan, hiru milioi pertsona inguru bizi gara. Egun, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak autonomia propioa osatzen dute, Eusko Jaurlaritza izanik gobernua. Gipuzkoak ere eskumen propioak ditu eta Foru Aldundia da gobernu organoa.

Euskal Herrian migrazio mugimenduek garrantzi handia izan dute historikoki eta, nola ez, gaur egun ere bai. Euskal Herria askotarikoa da, Euskal Herriko hizkuntza eta kultura guztiak dira aberasgarri euskal kulturarekin bizikidetzan.

Gipuzkoa lurraldearen ipar erdialdean dago kokatua. Bertan, 700.000 pertsona inguru bizi gara. Hiriburua Donostia da. Urola Kosta eskualdean dago Zumaia, eta mugakide ditu Bizkaiko Golkoa (itsasoa), Aizarnazabal, Zestoa, Getaria eta Deba.

3. Euskaraz egin

Euskal Herriko berezko eta bertako hizkuntza da euskara eta izaera ofiziala du lurralde honetan. Euskarak Euskal Herria du bizitoki bakarra. Zumaia etortzen denak berehala nabaritzen du kalean euskaraz hitz egiten duela jendeak, errotulazioa euskaraz dagoela... Izan ere, Zumaia oso herri euskalduna da, herritarren ia % 80k euskaraz badaki, eta horregatik da UEMA edo Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide. Euskara hizkuntza gutxitua da, ordea, eta urtetan kontra eduki duen legediak eta beste hainbat faktorek galtzeko zorian utzi zuten. Horregatik, azken 40 urteotan hizkuntza sustatzeko politikak eramaten ari dira aurrera, eta Zumaiako Udalean ere Euskara Zerbitzua badago, beste askotan bezala. Euskararen sustapena eta normalizazioa ditu zeregin nagusi zerbitzu horrek, eta Udalaren nahia da Zumaia euskararen arnagunea izatea, euskaraz bizi den herria.

Hizkuntzek berebiziko garrantzia dute oro har kulturaren, herri izaeran, nortasunean, herritarren arteko kohesioan; lanerako, ikasketetarako, bizitza sozialerako garrantzitsua da. Euskalduna zaren aldetik, egunerokoan euskaraz jardutera animatu nahi zaitugu. Horrela gure hiztun komunitatea sendotuko duzu eta bertako sentitzea errazago egingo zaizu.



Euskara ikasteko eta hobetzeko aukerak

Zumaiaiko Udalak dirulaguntzak ematen dizkie euskara ikastaroak egiten dituzten herritarrei.

Zumaian erroldatua egotea eta ikastaroan asistentzia gutxienez % 80koa izatea dira bete behar diren baldintzak.

Bi baldintza horiek betez gero, Udalak gastu akademikoaren % 75 lagunduko du diruz. Ikastaroak irauten duen bitartean langabezian egon eta baldintzak betetzen dituztenei, berriz, gastu akademikoaren % 100 itzuliko zaie. Eskabideak aurkezteko, bi epe irekitzen dira urtero, uztailean eta urrian.

Igor AEK euskaltegia

AEK helduen euskara irakaskuntzan diharduen erakundea da. Euskaraz mintzatzen, irakurtzen eta idazten irakatsi eta euskal kulturaren sakontzeko aukera eskaintzea da AEKren zeregina.

📍 Bidasoa kalea 1

☎ 943 860248

✉ zumaia@aek.eus

EPA

Helduei euskara ikasteko aukera eskaintzen die.

✉ ☎ 🕒 Harremanetarako: **012760aa@hezkuntza.net** edota Zarauzko zentrora deituta (943 130013) **ostiraletan, 09:30etik 13:30era**.



4. Eskubideak eta baliabideak

4.1. Erroldatzea eta informazio orokorra

Herritar guztiak azaltzen diren erregistroari Udal Errolda deitzen zaio, eta erroldan izena emateari erroldatzea. Espainiako nazionalitatea dutenak ez ezik atzerritarrak ere errolda daitezke, pertsona horien egoera administratiboa edo adina kontuan hartu gabe. Erroldatzeak hainbat eskubide publiko zehatzen onuradun izatea eskaintzen du.

Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrek bizileku baimen iraunkorrik ez badute, horien erroldatzeak 2 urteko balioa izango du, eta interesdunak berriro egin beharko du, epe hori bukatu ondoren. Hala egin ezean erroldatzea iraungi egingo da.

Garrantzitsua da erroldako erregistroa eguneratuta edukitzea, eta helbidez aldatzen den bakoitzean horren berri ematea.

Zumaiako Udala - Herritarren Arreta Zerbitzua

- 🕒 Astelehenetik ostiralera: neguan 08:00-14:30 eta udan 08:00-14:00.
- 📍 Foruen plaza 1
- ☎ 943 865025
- ✉ haz@zumaiia.eus

4.2. Egoera legalari buruzko informazioa

Aholku-sarea

Eusko Jaurlaritzak Aholku-sarea izeneko sare bat dauka, atzerritartasun arloko aholkularitza juridikoa emateko ahulezia egoeran dauden etorkinei. Eskualdean SOS Arrazakeria arduratzen da zerbitzu hori emateaz, Zarautzen:

- Atzerritarrei laguntza ematen zaie Espainiako estatuan bizitzeko, lan egiteko edo ikasteko behar dituzten baimen administratiboak lortzeko.
- Pertsona batzuk beren oinarrizko eskubideak erabiltzeko dituzten zailtasunak jaso eta salatzen dituzte (justizia, hezkuntza, osasun laguntza eta abar jasotzeko eskubidea).

- 📍 Zuberoa 22. Zarautz
- ☎ 943 245626 / 943 245627



Eusko Jaurlaritzaren informazio eta arretako doako telefonoa

Egoera administratiboei eta atzerritartasuneko legediari buruzko arloetan informazioa, orientazioa eta aholkularitza ematen du, eta jendea zerbitzu espezializatuetera bideratzen da.

Telefonoak badu aldibereko itzulpen zerbitzua ere, EAEn gehien hitz egiten diren hizkuntzetarako.

☎ 900 840 890 • ✉ asesoria@euskadi.eus

Polizia Nazionala (Atzerritartasunaren eta Mugen Brigada - Donostia)

Agiri hauek tramitatzen dira:

- Itzultzeko baimenak
- Gonbidapen gutunak
- Ziurtagiriak eta Atzerritarraren Identifikazio Zenbakia
- Ikasleak
- Atzerritarren Nortasun Txartela
- Nazionalitate txostenak
- Egonaldien luzapenak
- Erregimen komunitarioa
- Irabazirik gabeko egonaldiak
- Asilo eta babes eskaerak
- Bidaiatzeko baimenak eta Inskripzio zedulak

🕒 Astelehenetik ostiralera, 09:00-17:00

📍 Jose Maria Salaberria 16. (20010 Donostia)

☎ 943 449809 / 943 449810 / 943 449811

Laneko Sail Probintziala (Gobernuaren Ordezkaritzaordea). Atzerritarren Unitatea Donostian

Europar Batasunetik kanpokoek dokumentu hauek tramitatzen dira:

- Bizileku baimenak
- Bizileku eta lan baimenak
- Familiak berrelkartzea
- Itzultzeko baimena
- Bidaiatzeko baimena edo egonaldi zedula
- Egonaldiaren luzapena

📍 Pío XII plaza 6. 20010 Donostia

✉ oficina_extranjeros.gipuzkoa@correo.gob.es

☎ Tel. eta hitzordua: 943 989110

🕒 Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 17:30era



Polizia Nazionala

Europar Batasunekoek dokumentu hauek tramitatzen:

- Erregistroko ziurtagiria (Europar Batasuneko herritarrek bakarrik)
- Atzerritarraren Identifikazio Zenbakiaren ziurtagiria
- Bizileku txartela
- Gobernuaren Gipuzkoako ordezkariaren emandako baimenak sinatu eta hatz marka jarri

📍 **Urumeako pasealekua 17-18. 20014 Donostia**

☎ **943 449800 / 943 449810 / 943 449811**

4.3. Gizarte arreta

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren sartzeko ataria da. Funtzio nagusiak hauek dira: behar sozialak antzematea eta artatzea, eta pertsonen, familien eta taldeen integrazio soziala lortzea

Zumaian, beste edozein pertsonak bezala, eskubidea daukazu Udalaren Gizarte Zerbitzuetara jartzeko.

Zumaian erroldatutako pertsona guztientzako zerbitzuak dira (adinekoak, adin txikikoak, indarkeria matxista pairatu dutenak, etab.), egoera juridikoa edozein izanda ere (egoitza baimena edukita edo gabe) eta erroldatuta egon gabe ere bai.

Bertara jo dezakezu, edozein zerbitzuri buruzko informazio zehatzagoa jasotzeko edo izapideak martxan jartzeko. Gizarte Zerbitzuen helburu nagusia da herritarren ongizatea, bizi kalitatea eta autonomia ahalbidetzea.

Oharra: euskaraz edo gaztelaniaz komunikatzeko zailtasunak izanez gero, norberaren hizkuntzara interpretatzeko eska daiteke.

Zumaiako Udalaren Gizarte Zerbitzuak: Branka eraikina

📞 **Telefonoz eskatu hitzordua: astelehenetik ostiralera 08:30 - 14:30**

📍 **Aizkorri 4**

☎ **943 862200**

✉ **brankaharrera@zumaia.eus**





4.4. Osasuna

Osasun Txartel Indibidualak (OTI) laguntza medikoa jasotzeko eskubidea ematen du.

Gizarte Segurantzaren afiliazio agiririk ez baduzu, osasun zentroan esango dizute zer baldintza bete behar dituzun Osasun Txartel Indibiduala jasotzeko.

Zumaiako Osasun Zentroa

 Basadi auzunea 15


 943 006490


Larrialdiko Osasun Laguntza

Behar izanez gero, Zumaiako Osasun Zentroan larrialdietarako arreta dago. Pertsona guztiak dute larrialdiko osasun laguntza jasotzeko eskubidea, nahiz eta Osasun Txartel Indibidualik ez eduki.

4.5. Etxebizitza

Zumaiako Udaleko Etxebizitza bulegoa: etxebizitzaren inguruko izapide batzuetan laguntzeko zerbitzua da.

 Foruen plaza 1

 943 865025

 etxebizitzabulegoa@zumaia.eus

Etxebizitzarako sarbide publikoa (alokairurako eta erosketarako informazioa eta eskaera): Etxebide

Etxebizitzako Euskadiko zerbitzua

 Zuzenean. Andia 13, Donostia

 www.etxebide.euskadi.eus



4.6. Enplegua

Enplegua bilatzeko zerbitzuak

Lanbide

Eusko Jaurlaritzaren enplegu zerbitzua da. Jo bertara lehen enplegua bilatzen ari bazara, langabezia bazea, lan merkatura itzuli nahi baduzu, lanean arituta ere enplegu aldatu nahi baduzu.

Enpresei aholkularitza eta laguntza eskaintzen zaie enplegua sortzeko, eta langileak behar dituztenean bertara jotzen dute.

☎ 945 160600 eta 630 305 452

✉ zarautz@lanbide.eus

Urola Kostako Udal Elkartea

🕒 Astelehenetik ostiralera 08:00–15:00

📍 Urdaneta bidea 6, Zarautz

☎ 943 890809

✉ harrera@urolakosta.eus

Lan arloko eskubideak

Egoitza baimenik eta lan baimenik ez duten langile atzerritarrak ez daude legezko egoeran, baina, hala ere, lan eskubideak dituzte. Erakunde sindikalei edo Lan ikuskaritzari jakinaraziko zaie arauz kanpokotzat hartzen den zirkunstantzia oro (hala nola, gehiegizko ordutegiak, soldata diskriminazioak, diru kopuruen erreklamazioa, istripu arriskuak edo bidegabeko kaleratzeak).

ELA sindikatua

📍 Bizkaia kalea 8
Zarautz

☎ 943 000528

LAB sindikatua

📍 Zigordia 11, 1 esk
Zarautz

☎ 943 894374

Lan ikuskaritza eta Gizarte Segurantza

📍 Urdaneta 7-1.a
Donostia

☎ 943 023550

✉ itpv-gipuzkoa@euskadi.eus



Atzerrian egindako ikasketen homologazioa

Atzerritarren kasuan, jatorrizko herrialdeekin eginda dauden akordioen arabera egiaztatzen eta baliozkotzen dira aurrez egindako ikasketak. Horretarako, egiaztagiria eraman behar dira estatuko Goi mailako Ikuskaritzak Gipuzkoan duen ordezkartzara, eta tasa batzuk ordaindu.

Goi mailako ikasketak

Gobernuaren Ordezkaritza Gipuzkoan (Hezkuntza Departamentua)

Herritarren arreta. 060 bulegoa

📍 PIO XII 6. 20011 Donostia

☎ 943 989300 eta 943 989115

Bigarren hezkuntzako ikasketak

Eusko Jaurlaritza Hezkuntza Saila

📍 Andia kalea 13 20004 Donostia

☎ 012

BIDEZ BIDE (Gobernuz kanpoko erakundea)

Bidez Bide gobernuz kanpoko erakundeak doako aholkularitza eta informazioa eskaintzen du ikasketak homologatu eta baliozkotzeko (bigarren mailako ikasketak, batxilergoa, ikasketa teknikoak, goi mailakoak edo unibertsitatea).

Zumaiako Emakumeon* Etxea

📍 San Telmo 19 (Sarrera nagusia Martxoaren 8a plazatik)

☎ 633 432762 (Deitu hitzordua hartzeko)



5. Hezkuntza

6 urtetik 16 urte bitarteko haurren eskolaratzea doakoa eta derrigorrezkoa da.

0-2 urte Haurreskolak

2-12 urte Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak

12-16 urte Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak

16-18 urte Batxilergoko ikastetxeak

Hezkuntza ereduak:

D Irakaskuntza osorik euskaraz ematen da, gaztelaniako irakasgaia izan ezik.

B Irakaskuntza elebiduna da.

A Gaztelaniaz ematen da irakaskuntza eta euskara irakasgai bezala izaten da.

18 urtetik beherakoak

Zumaiako ikastetxe publikoak eta itunpekoa daude eta eskaintza osoa D eredukoa da. Plaza libreak badaude, horietako edozein aukeratu ahal duzu adingabeak matrikulatzeko. Eskoletan ez dago sexuaren araberako banaketarik.

Ikasturtean zehar, aukeratutako zentrora bertara joan zaitezke edo, bestela, zuzenean Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Ordezkaritzara.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Ordezkaritza

📍 Andia kalea 13. 20004 Donostia

☎ 943 022800

✉ huisgreg@euskadi.eus

Ikastetxeek adinaren arabera dagokien mailan sartzten dituzte ikasleak, maila akademikoaren eta hezkuntza beharren araberako egokitzapen txiki batzuekin.



IKASTETXEAK

ESKOLA TXIKIA HAURRESKOLA

D eredua / publikoa / (0-2 urte)

📍 Aita Mari 1

☎ 943 865345 / ✉ eskolatxikia.zumaia@haurreskolak.eus

ARRANGOLETA HAURRESKOLA

D eredua / publikoa (0-2 urte)

📍 Juan Belmonte 14

☎ 943 862292 / ✉ arrangoleta.zumaia@haurreskolak.eus

OIKIAKO ESKOLA

D eredua / publikoa (2-12 urte)

Haur eta Lehen Hezkuntza

📍 Estratazpia 0-A

☎ 943 899223 / ✉ 012299aa@hezkuntza.net

HERRI ESKOLA

D eredua / publikoa (2-12 urte)

Haur eta Lehen Hezkuntza

📍 Haur Hezkuntza: Aita Mari 44

📍 Lehen Hezkuntza: Sagarbidea 1

☎ 943 861037 / 943 861693

✉ 012972aa@hezkuntza.net

ZUMAIAKO INSTITUTUA

D eredua / publikoa (12-18 urte)

Bigarren Hezkuntza

📍 DBH1 eta 2ko egoitza: Sagarbidea 1

📍 DBH3, 4, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako egoitza: Aita Mari 45

☎ 943 899253 / ✉ idazkaritza@zumaiaabhi.eus

ZUMAIENA IKASTETXEA

D eredua / Itunpekoa (0-18 urte)

Haurreskola, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa

📍 Axular ibiltokia 6

☎ 943 860462 / ✉ ikastetxea@zumaiena.eus

SOLDADURA ZENTROA

Publikoa (16-18 urte)

📍 Urola plaza 10

☎ 943 862576 / ✉ soldadurazentroa@urolakosta.eus



18 urtetik gorakoak

EPA

Helduentzako doako irakaskuntza zentroa da. Besteak beste, ondorengo oinarrizko prestakuntza eskaintzen du:

- Oinarrizko hezkuntza eta gaztelaniaren eta euskararen irakaskuntza.
- Bigarren hezkuntzako egiaztagiria.
- Unibertsitatean sartzeko prestakuntza 25 urtetik gorakoentzat.

Harremanetarako:

✉ 012760aa@hezkuntza.net
edota Zarauzko zentrora deituta

☎ 943 130013

🕒 ostiraletan, 09:30etik 13:30era

Gurasoen parte hartzea

Eskoletan haurren gurasoek parte hartzeko guneak dira ikastetxeetako gurasoen elkarteak (IGEak). Informazioa ikastetxe bakoitzean eskura daiteke.

Lubaki Guraso Elkarte: Zumaiako Herri Eskolako HH eta LHko gurasoak

Telmo Deun Guraso Elkarte: Zumaiako institutuko gurasoak

Zumaienako Guraso Elkarte: Zumaiena ikastetxeko gurasoak

Kolarre Guraso Elkarte: Oikiako herri ikastetxeko gurasoak



6. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

Zumaiako Udalak Berdintasun saila dauka, eta honako gai hauei buruzko informazioa, aholkularitza eta kontsulta eskaintzen ditu:

- Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunari buruzko edozein gai.
- Sexu eta genero arrazoientzako diskriminazioarekin lotutako gaiak.
- Indarkeria matxista eta tratu txarrak.

Emakumeon* Etxea

Gizarte parekide batean aurrera egiteko topagune irekia. Ikasteko, prestakuntza eta informazioa jasotzeko. Sareak sortu eta emakumeen* ahalduntzea bultzatzeko. Ikuspegi feministatik eztabaida eta gogoeta pizteko. Indarkeria matxistatik gabeko elkarbizitza sustatzeko. Helburu horrekin, programazio zabala egingo du etxeak, tailerrekin, hitzaldiekin zein bestelako jardurekin.

📍 **San Telmo 19 (Sarrera nagusia Martxoaren 8a plazatik)**

☎ **633 432762**

✉ **info@zumaiakoemakumeonetxea.eus**

Malen Etxea elkarte, emakume etorkinen elkarte

Honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Aholkularitza zerbitzua: atzerritartasuna, lan eskubideak eta baliabide instituzionalak.
- Norbanako autonomia lortzeko babesa eta formazioa, emakumeen autonomia ekonomikoa ahalbidetzeko eta egunerokoan sortutako gorabeherak kudeatzeko laguntza.
- Harrera etxea: emakume etorkinentzako espazio segurua.

Harremanetarako:

☎ **653729117 eta 688641917**

✉ **contacto@malenetxea.org**



Indarkeria sexista

Zer egin dezakezu tratatu txarreko egoera batean bazaude?

Larrialdietan, deitu Eusko Jaurlaritzaren SOS Deiak telefonora (**Tel.: 112**), eta eskatu laguntza eta akonpainamendua, edo Zumaiako Udaltzaingora deitu: 943 143232 (Fielatoan, Axular 1).

Hauetako zerbitzu batera joan zaitezke edo deitu dezakezu:

Udaleko Gizarte Zerbitzuak (Branka)

📍 Aizkorri 4

☎ 943 862200

✉ brankaharrera@zumaia.eus

Udaleko Berdintasun saila (Udaletxean)

📍 Foruen plaza 1

☎ 943 865025

Indarkeria matxista jaso duten emakumeentzako zerbitzu espezializatua (Eusko Jaurlaritza)

☎ 900 840111. Doako telefonoa, eta 24 ordukoa.

✉ satevi@zerbitzuak.org

Zerbitzu horietan eskubidea daukazu behar duzun arreta eta laguntza jasotzeko, zure egoera juridikoa edozein izanda ere (paperekin edo gabe) eta erroldatuta egon gabe ere.

Oharra: Euskaraz edo gaztelaniaz komunikatzeko zailtasunak izanez gero, norberaren hizkuntzara interpretatzeko zerbitzua eska daiteke.



7. Zumaia, herri bizia

7.1. Kultura

Zumaiaiko Kultura Sailaren helburu nagusia da Zumaiaiko kultur bizitza dinamizatzea. Helburu horrekin kultur eskaintza erakargarria egiten saiatzen dira erakusketak, ikuskizunak, ikastaroak eta abar antolatuz; jaiak antolatzen dituzte, kultura programetarako dirulaguntzak kudeatzen dituzte, etab.

Alondegia kultur etxea

📍 Erribera kalea 23
 📞 943 861056
 ✉️ kultura@zumaia.eus

Baliabideak:

Udal Liburutegia

Zumaiaiko Udal Liburutegia Alondegia Kultur Etxean dago. Helduen Liburutegia 4. solairuan eta Haur Liburutegia 3. solairuan.

18.000 dokumentutik gora daude eskuragarri liburutegian: liburuak, ikus-entzunezkoak, CDak... Hemerotekan, egunero zenbait egunkari jasotzeaz gain, aldizkariak ere mailegagarri daude.

📍 Erribera 23
 📞 943 862730
 ✉️ liburutegia@zumaia.eus
 ✉️ haurliburutegia@zumaia.eus

Musika Eskola

Musika, dantza eta antzerki arlotako ikastaro eskaintza zabala.

📍 Ubillos jauregia - San Jose kalea 14
 📞 943 861183 (09:00-13:00 eta 17:30-19:30)
 ✉️ idazkaritza@zumaiaemusika.eus

KZ gunea

KZ Gunea sareak teknologia berriei buruzko doako zerbitzuen eta ikastaroen katalogo zabala eskaintzen du.

📍 Odieta kalea 2
 (Foronda jauregia)
 📞 943 023692
 ✉️ tutor.zumaia@kzgunea.net
 🌐 www.kzgunea.eus

🕒 Astelehenetik ostiralera 09:00-13:00
 edo 16:00-20:00 (hilabete bat goizez
 eta hurrengo hilabetea arratsaldez)



7.2. Kirola

Zumaiak aukera zabala du kirol jarduera eta baliabideetan. Kirol Patronatuak kirola sustatzeko ekintzak antolatzen ditu, urte osoan zehar eta helduei eta haur eta gazteei bideratuak. Horrez gain, kirola praktikatzeko elkarte ugari daude herrian.

Lubaki kiroldegia

📍 Basadi auzunea 16
☎ 943 862021
✉ kirolak@lubaki.eus

7.3. Haur eta gazteentzako baliabideak

Udal Ludoteka eta Gaztegunea: haurren nahiz gazteen aisiarako udal ekipamenduak dira eta ekintza ludikoak eta hezitzaileak eskaintzen dituzte.

Ludoteka

6-12 urte bitartekoentzat. Udan udalekuak antolatzen ditu.
📍 Itsas kiroldegia
☎ 943 143264
✉ ludoteka@zumaia.eus

Gaztegunea

12-17 urte bitartekoentzat.
📍 Kantauri plaza 13
☎ 688 612940 eta 633 467132
✉ gaztegunezumaia@gmail.com

7.4. Adinekoentzako baliabideak

Adinekoen aisialdirako askotariko baliabideak daude herrian.

Hogarra

Jubilatu eta pentsiodunen txokoa: jarduera, txangoak, ikastaroak, ile apaindegia, masajista eta podologo zerbitzuak.

📍 Eusebio Gurrutxaga plaza 3
☎ 943 862200

8. Mapa



1. Udaletxea
2. Emakumeon* etxea
3. Udaltzaingoa
4. Aita Mari zinema
5. Lubaki kiroldegia
6. Alondegia kultur etxea: Udal Liburutegia
7. Foronda jauregia: KZ gunea
8. Musika Eskola
9. Ludoteka
10. Gaztegunea, eta ondoan Turismo bulegoa
11. Osasun Zentroa
12. Branka, Gizarte Zerbitzuak
13. Hogarra

- A Skate pista
- B Aita Mari futbol zelaia
- C Odieta pilotalekua
- D Aitzuri pilotalekua

